



## ZER DA KLIMA-ALDAKETA?

Lurreko klima inoiz ez da estatikoa izan, klima-aldaketa ugari gertatu izan baitira gizateriaren historian zehar. Lurreko klimaren gorabehera globalak dira, arrazoi naturalak edo gizakion ekintzak direla kausa.

Nazio Batuek Klima Aldaketaz egindako Konbentzio Esparruaren arabera, klima-aldaketa "klima-gorabehera bat da, zeina zuzenean edo zeharka giza jardueraren ondorioa baita, eta munduko atmosferaren osaera aldatzen duena"<sup>1</sup>. Atmosferaren osaerari dagokionez, "berotegi efektua" esaten zaio Eguzkiaren beroa Lurreko atmosferan atxikitzeari gasek osatutako geruza baten ondorioz.

<sup>1</sup> Nazio Batuen Konbentzio Esparrua Klima Aldaketaz (UNFCCC), 1992ko maiatzaren 9a, New York, 3. or.

"Gas horiek gabe ez zen posiblea izango egun ezagutzen dugun bizitza, planeta hotzegia izango litzatekeelako. Karbono dioxidoa, oxido nitrosoa eta metanoa daude gas horien artean, industriak, nekazaritzak eta erregai fosilen konbustioak aireeratuta. **Mundu industrializatuaren ondorioz, gas horien kontzentrazioan % 30 igo da joan den mendez geroztik; lehenago, gizakion ekintzarik gabe, natura arduratzen zen gas horiek orekatzeaz**"<sup>2</sup>.

Gizakion ekintzei lotutako klima-aldaketa berriari *berotze globala* esaten zaio, eta gizateriak aurrean duen ingurumen-mehatxu handiena da. Oso kezagarriak dira klima-aldaketa horren

<sup>2</sup> Zer da klima-aldaketa eta nola eragiten digu?, Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren Ministerioa, Espainiako Gobernuak, 2018.



eraginak: glaziar-masen urtze etengabea, itsas mailaren igoera, lehortekak, muturreko fenomeno meteorologikoak... Azken batean, **klima-aldaketa arazo globala da, ingurumen, politika, ekonomia eta gizarte arloetan eragiten duena**<sup>3</sup>.

## GIZA ESKUBIDE BAT: INGURUMEN EGOKI BAT

Klima-aldaketa eta giza eskubideak ezinbestez loturik daude. 2016ko urrian, Klima Aldaketaren eta Giza Eskubideen Adituen Bilkura egin zen, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioak (ACNUDH) antolatua, eta hainbat eragile garrantzitsu bildu ziren **klima-aldaketaren aurkako neurriez eztabaidatzeko, betiere giza eskubideak oinarri hartuta. Parisko Akordioaren** aplikazioaren ondorioz gauzatu zen hori guztia, klimari buruzko lehen akordio unibertsal loteslea baitzen –2015eko abenduan egindako

**Klimari buruzko Parisko Konferentziaren (COP21) emaitza zen–. COP21 Konferentzian zehar, gobernuek muga bat jarri zioten munduko batez besteko tenperaturaren igoerari: 1,5°C.**

Mundu Bankuaren arabera, **hondamendi naturalek eragindako galerak 3,8 bilioikoak izan dira 1980tik**, eta hori kontuan hartuta, uste izatekoa da Estatuak karbono-igorpenak

murrizteaz duten interesa horretan datzala hain zuzen: klima-aldaketaren kostu ekonomikoak murriztu nahi dituzte.

Hala ere, klima babesteko ekintza horren urgentzia huts baten ondorioa da: estatuak ez zieten jaramon handirik egin aurretik hartuak zituzten beste konpromiso batzuei, zeinek Estatuak premiatzen baitzituzten **“ekintzak egiterakoan, arreta handia jartzera ingurunearentzat izan zitzaketen ondorioetan”**<sup>4</sup>. Konpromiso horiek ingurumena babestu nahi dute, hain zuzen, pertsona guztien giza eskubide inalienablea delako –hirugarren belaunaldiko giza eskubidea da, “elkartasun-eskubide deitutakoen barnean dagoena”<sup>5</sup>–.

Hala da, ingurumen egoki bat izateko eskubideak bermatzen du **pertsona garatzeko moduko ingurumen seguruaz gozatzeko eskubidea; alabaina, ordain gisa zaindu beharra dago, eta botere publikoak behartuta daude baliabide naturalen arazoizko erabilera ziurtatzera**. Esplizituki aitortuta dago NBERen zenbait adierazpenetan, hala nola Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Kyotoko Konbentzioan.

**Hain zuzen, aurretik hartutako konpromisoak bete beharraz hitz egiten du Garapen**

<sup>4</sup> *Nazio Batuen Giza Inguruneari buruzko Konferentzia*, Nazio Batuen Konferentzia Giza Inguruneari buruz, 1972ko ekainaren 16a.

<sup>5</sup> *Los Objetivos de Desarrollo Sostenible: una herramienta transversal en el aula*, FABRE Fundazioa, 2-3. or.

<sup>3</sup> *Klima-aldaketa: Arazoa*. Greenpeace Espainia.



**Iraunkorrerako 13. Helburuaz (13GIH), bere 5. xede multzoan<sup>6</sup> eskatzen baitu neurri urgenteak hartzeko klima aldaketaren eta haren ondorioen aurka borrokatzeko.**



## 2030 BERANDU DA JADA: ORAIN EGIN BEHAR

NBEk GIHei buruz egindako azken txostenaren arabera, **planetaren berotzeak aurrera jarraitu zuen 2016an, baita marka berria ezarri ere: 1.1°C industria aurreko garaiaren gainetik.**

**Itsas izotzaren luze-zabalera 4.14 milioi kilometro koadrorra txikitu zen –historian erregistratutako bigarren txikiena–; halaber, azken urteotan areagotu egin zen arrisku naturalek eragindako hildako kopurua: 1990 eta 2015 bitarte, 1.6 milioi pertsonatik gora hil ziren nazioartean informatutako arrisku naturaletan<sup>7</sup>.**

Egoera kezagarri horren aurrean, **13.2 xedeak adierazten du “klima-aldaketari buruzko neurriak sartu behar direla politika, estrategia eta plan nazioaletan”. Nazioarteko erantzuna berehalakoa izan zen Parisko Akordioa eginez, eta ikuspegi-aldaketa bat suertatu zen klima aldaketaren**

**aurkako neurrien ezarpenean mundu mailan; salbuespena dira Siria eta Nikaragua, planetik kanpo baitaude, baita AEB ere, 2017an ateratzen planetik.**

*I. grafikoa. Parisko Akordioaren mapa: Parisko Akordioa berretsi edo sinatu duten herrialdeak, 2017ko ekainaren 1ean. Iturria: UNFCCC, Business Insider.*



**Klima-aldaketaren eraginak arintzeko ekintza ezin da atzeratu, eta, gainera, harekin batera neurriak ezarri behar dira mundu guztiko herritarrak egokitu ahal izan daitezen klimari lotutako arriskueta eta hondamendi naturaletara (13.1 xedea); eta, noski, betiere arreta berezia jarrita herrialde pobretuenen kudeaketan eta komunitate kalteberenen beharretan (13.b xedea).**

<sup>6</sup> 13GIHri buruzko 5 xedeen gaineko informazio gehiago ([linka](#)).

<sup>7</sup> GIH Txostema 2017, PNUD.



## NORK ZER EGIN?

### NAZIOARTEKO MAILAN



13.b xedeak eskatu egiten die Ipar aldeko herrialdeei bete dezatela hartutako konpromiso hau: 2020. urterako 100.000 milioi dolar bideratzea, urtean eta denek batera, Hego aldeko herrien beharrei erantzutera, betiere klima-aldaketaren ondorioak arintzeko neurriak hartzeari begira.

### NAZIO MAILAN



13.3 xedea beteko bada, ezinbestekoa da Gobernuak Garapenerako Hezkuntzaren eta Herritartasun Globalaren aldeko apustua egitea; izan ere, 13.3 xedeak dio hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza gaitasuna hobetu behar direla klima-aldaketaren ondorioak arintzeko, hartara egokitzeko, eraginak murrizteko eta alerta goiztiarra izateko.

### TOKI MAILAN



Ecopreneurs for the Climate (ECO4CLIM) irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, eko-enpresak bultzatu eta gizartearen inplikazioa areagotu nahi duena klima-aldaketaren aurkako borrokan inplikatuak dauden enpresetan. Ezagutu haren lana [FABRE – 13GIH Testigantzan](#).

## ETA ZUK, ZER EGIN DEZAKEZU?



“Bada liburu bat beti zabalik dagoena begi guzti-guztientzat: *Natura*.” Jean-Jacques Rousseau.

### Haur eta Lehen Hezkuntza

Ikasgelan kontsumoa murriztu eta materialak berrerabili eta birziklatu egiten dituzue. Zergatik da garrantzitsua?, zer gertatuko litzateke planeta babestuko ez bagenu? Azaldu Lehen Hezkuntzako ikasleei zer den klima-aldaketa [Happy Learning-en bideo honekin](#). Haur Hezkuntzakoekin, ikasi eta kantatu hau: [¡El planeta hay que salvar!](#) Gure eguneroko ekintzek Ingurumenean nola eragiten duten ulertzeko, [ikusi bideo hau](#). Animatu etxeoak plastikorik eta aluminiozko paperik ez erabiltzeko bokatak biltzeko orduan: oihalezko poltsa berrerabilgarriak erabil ditzakete.

### Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

Planteatu ikasleei honako egoera hau: uharte batera bidaiatu behar dute eta 3 gauza aukeratu behar dituzte hara eramateko. Zer aukeratuko dute?, nola irudikatzen dute uharte hori? Hondartza idilikoei buruzko ideiak agertuko dira, noski, baina, orduan, erakutsi iezaiezu zer uhartetara joan behar duten: **zabor-uharte batera**. Aukeran, badira batzuk Ozeano Atlantikoan eta Barean. Ikusi [plastikozko uharteei buruzko dokumental hau](#) eta, taldeka, iker dezatela zenbat dauden, non dauden eta zergatik sortu diren. Kontsumitzen dugun eta ozeanoetara iristen den plastiko kopurua murrizte aldera, Greenpeacek sinadurak biltzen ditu supermerkatuei eskatzeko plastiko gutxiago erabil dezatela elikagaiak biltzerakoan. Ezagutu eta bat egin [#DesnudalaFruta](#) kanpainarekin [hemen](#).

Proiektuaren egilea: 

Laguntzailea:  Universidad de Navarra  
Instituto de Derechos Humanos

Laguntzailea:  Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra